

XXX. IGANDEA URTEAN ZEHAR (C)

Otoitza

Jainko ahalguztidun betierekoa,
handitu gugan sinesmena, esperantza eta maitasuna;
eta zure agintzariak iristeko,
egizu, maita ditzagula zure aginduak.
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Sir 35, 15b-17. 20-22a

Behartsuaren otoitzak hodeiak zulatzen ditu.

Siraken liburutik

Jainko zuzena da Jauna,
inoren bereizkuntzarik egiten ez duena.
Ez du bereizkuntzarik egiten behartsuen kontra,
eta entzuten du zapalduaren otoitza.
Ez du gutxien, ez umezurtzaren eskabiderik,
ez erreguka ari zaion alargunarenik.
Haien nahigabeek beren aldera ekartzen dute Jauna,
eta haien otoitza hodeietaraino igotzen da.
Behartsuaren otoitzak hodeiak zulatzen ditu,
eta ez du onik, Jainkoarengana iritsi arte;
ez du etsitzen, Jainkoak entzuten dion arte
eta epaile zuzenak zuzenbide egiten dion arte.

ERANTZUN SALMOA: Sal 33, 2-3. 17-18. 19 eta 23

**R/. Dohakabeak oihu egin zuen,
eta Jaunak entzun.**

Bedeinka dezadan aldi oro Jauna,
nire ahoan beti Haren gorespena.
Gailendu bekit bihotza Jaunarekin,
poztu bitez apalak hori entzutearekin. R/.

Gaizkileen aurka Jaunaren aurpegia,
gal dadin lurrean haien oroipena.
Zintzoek dei egin zioten, eta Jaunak entzun,
estualdi guztitik atera zituen bere eskuz. R/.

Hurbil dute Jauna bihotzurratuek,
salbatzen ditu barrenez atsekabetuak.
Jaunak askatzen ditu bere morroiak,
ez du izango zigorrik Harengana ihes doanak. R/.

II. IRAKURGAIA: 2 Tm 4, 6-8. 16-17

*Orain prestaturik dago niretzat
zuzentasunaren koroa.*

San Paulo Apostoluak Timoteori

Anaia maite: Neure odola isurtzeko zorian nago ni; nireak laster egingo du. Borroka ona egin dut, ibilaldia bukatu dut, gorde dut sinesmena. Orain prestaturik dago niretzat zuzentasunaren koroa, Jaunak, epaile zuzenak, egun hartan emango didana; ez, ordea, niri bakarrik; baita Haren etorrera maite duten guztiei ere.

Zatozkit lehenbaitlehen. Nire lehenengo auzian bakarrik utzi ninduten denek; ez zitzaidan inor alde atera. Jainkoak barka biezaie. Baina Jauna nire alde nuen eta Berak indartu ninduen, berri on osoa nire bidez zabal zedin eta herri guztiek entzun zezaten.

EBANJELIOA: Lk 18, 9-14

Aleluia: 2 Kor 5, 19a. c

R/. Aleluia.

V/. Jaungoikoa mundu Berekin adiskidetzen ari
zen Kristorengan,
eta guri eman zigun adiskidetzearen hitza. R/.

*Zergalaria zintzoturik jaitsi zen bere etxera;
farisearra, berriz, ez.*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik

Aldi hartan, parabola hau esan zuen Jesusek, beren buruak zintzotzat, eta besteak ezerez bezala zeuzkatelako, harroturik zebiltzan zenbaitzuzentzat:

«Bi gizon igo ziren jauretxera otoitz egitera: bata farisearra eta bestea zergalaria. Farisearrak, zutik, honela egiten zuen otoitz bere barruan: "Eskerrak ematen dizkizut, ene Jainko, besteak bezalakoa ez naizelako: lapur, oker, ezkontz nahasle; ezta honako zergalari hau bezalakoa ere. Astean bitan egiten dut barau; eta ditudan guztien hamarrenak ematen ditut".

Zergalaria, berriz, urruti gelditu zen, eta ez zuen begirik ere jaso nahi zerura; eta bular joka, honela zioen: "Ene Jainko, erruki zakizkio bekatari honi!"

Hara Nik esan: Hau zintzoturik jaitsi zen bere etxera; bestea, berriz, ez. Izan ere, bere burua goratzen duena, beheratua izango da; eta bere burua beheratzen duena, goratua».

Oparigaien gainekoa

Begira, Jauna, ekarri dizkizugun eskaintza hauei,
guk, zure zerbitzariok, egiten dugun hau
Zuretzat goresgarri izan dadin.
Jesu Kristo.

Jaunartze ondorengoa

Zure sakramentuok, Jauna,

egin dezatela gudan beroiek adierazten dutena,
orain irudipean egiten duguna
gero egiaz eta osorik har dezagun.
Jesu Kristo.